



IMMIGRAZIORAKO ITUN SOZIALA EUSKADIN

Elkarbizitzaren aldeko konpromezua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

IMMIGRAZIORAKO ITUN SOZIALA

Elkarbizitzaren aldeko konpromisoa

“Aniztasuna gure historiaren eta gure identitate kolektibo propioaren zati da”

Euskal gizarte askotarikoagoa

1. Ez da erraza etorkizunerako aurreikuspenak egitea. Dena den, bada gauza segururik: biharko Euskadi gaur egun ere badena baino gizarte askotarikoagoa izango dela. Aniztasun hori ez da atzerriko immigrazioaren ondorioa. Gizarte moderno guztien ezaugarri bereizgarria da aniztasuna: bizi-baldintzen eta bizi-moduen aniztasuna, identitate nazionalen aniztasuna, kultura- eta kosmoikuspengi-aniztasuna eta abar Euskadi ere beti izan da herrialde askotarikoa, historian zehar erlijio, hizkuntza eta kultura desberdinak elkarrekin bizi izan diren herrialdea. Aniztasuna gure historiaren eta gure identitate kolektibo propioaren zati da. Atzerritarren immigrazioak areagotu egin du euskal gizartean lehendik ere bazen aniztasuna, eta konplexuago bihurtu du. Horregatik, aniztasun berriek ez dute zertan ustekabea izan euskal herritarrentzat. Aitzitik, euskal herriaren esperientzia historikoak lagungarri izan beharko litzaiguke elkarbizitzari erantzun hobea eta egokiagoa emateko, betiere bereizgarri izan genuen aniztasun-mailan oinarrituta.
2. Etorkinak ez dira “Gure arteko Bestea”. Izan ere, guztion artean gaurdanik erakitzen ari garen etorkizuneko euskal “Guaren” zati dira jada. Egia esan, Euskadin beti izan dira zenbait “gu”. Une honetan, gu zibiko eta minimo bat da eraiki beharrekoa, eta uko egin behar diogu gure herrialdean errotuta dauden edo errotu ahal izango diren hainbat “gu” horiek azpimarratzeari. Aniztasunaren kudeaketa demokratiko batek identitateen konbinazioak antolatzeke eskatzen du gaur egun. Identitate zibikoa, kidetasun politikoaren ondoriozkoa, espazio minimo, zabal eta ireki gisa antolatu beharko da, bertan identitate anitz konbinatzeko aukera emanez. Garrantzitsua zera da, egoitza faktikoa Euskadin duten pertsona guztiek egungo “guaren” zati direla, eta ezin da denboraren edo historiaren arabera arrazoirik alegatu elkarbizitzako identitate-parametroak inposatzeko. Elkarbizitzak etengabe sortuko du tentsioa gure gizarte-harremanak uneoro antolatzeke oinarri gisa baliatzen ditugun “guaren” eta “haiek” horien artean, baina “gu” ofizial, minimo eta malguaren eraikuntzan guztiek dute parte-hartze efektiborako eskubidea.

“Etorkinen eta bertakoen eskubideak eta betebeharrak parekatzeko aldarrikapenean zehazten da”

Giza eskubideak, herritartasun inklusiboa

3. Immigrazioaren fenomenoak ez dugu ikuspegi utilitarista batetik lantzen, humanitatearen eta justiziaren ikuspegitik baizik. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren ikuspegia eta bertan bilduriko eskubide guztiak pertsona guzti-guztien on-

dare direlako uste osoa ditugu abiapuntu ¹. Halaber, abiapuntutzat ditugu berdintasunaren ideala eta diskriminaziorik ezaren printzipioa. Adierazi beharra dago printzipio hori Konstituzioren 14. artikuluan jasota dagoela, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea osatzen duten tresna guztiek ² zein Europar Batasuneko Antolamendu Juridikoak aitortzen dutela. Horrela, beraz, Europar Batasuneko funtsezko balioetako bat dela esan dezakegu. Eta, hori guztia, etorkinen eta bertakoen eskubideak eta betebeharrak parekatzeko aldarrikapenean zehazten da, betiere Konstituzioaren balioen esparruan.

4. Diskriminaziorik ezaren aitortpen formal horrekin batera berdintasuna bultzatuko duten jarrerak eta praktikak behar dira eguneroko praktiketan, aurreiritziak eta diskriminazio-tratu oro saihesteko. “Etorkinaren” nozioak berak sarriegi inplizituki daraman diskriminazioa gainditu behar dugu, eta etorkina ez dugu objektu soiltzat hartu behar, eskubideen subjektutzat baizik. Berdintasun-printzipioaren benetako aplikazio baten alde tinko egiten ez badugu, etorkinak bertakoa baino egoera okerragoan utziko ditugu. Eta etorkinen eskubideak aitortzean, ezin dugu onartu diskriminazio-tratua premisa gisa. Integrazioa ezinezkoa da pertsona guztien eskubideak aitortzen eta bermatzen ez badira. Horrek guztiak apustu irmoa eskatzen du berdintasun-printzipioa bere osotasunean eta bizitza sozial, ekonomiko, kultural eta politikoaren edozein esparrutan aplikatzeko. Ildo horretan, konpromisoa hartu behar dugu etorkinekiko diskriminazio-praktika orori aurrea hartzeko eta praktika horiek debekatzeko eta desagerrarazteko. Laburbilduta, onartezina da giza eskubideen ideia unibertsalista immigrazio-politiketan –oro har– eta integrazio-politiketan –bereziki– bilduta ez egotea. Eskubide eta askatasunen lege-murrizketei aurre egin behar diegu, eta berdintasunean oinarrituko diren eta aniztasuna zorrotz errespetatuko duten politika publikoak sustatu behar ditugu.
5. Itun honen asmo nagusia zera da, gizarte gisa herritartasun askotariko eta inklusi- bo baterantz aurrera egitea. Herritartasun horri jarraiki, guztion funtsezko askatasunen, eskubideen eta betebeharren ardatza ez da izango nazionalen eta atzerri- tarraren arteko bereizketa, guztiak ere egoiliar izatea baizik.

¹ Honako artikulua hauek gogoraraziko ditugu bereziki: **2. artikulua** (“Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen hone- tan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erli- jioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik”), **6. artikulua** (“Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitortu diezaio- ten eskubidea”), **7. artikulua** (“Denek dute Aldarrikapen hau hasten duen edozein diskriminazioaren aurka eta bereizkeria horren eragilean aurka babes berbera izateko eskubidea”) eta **13. artikulua** (“Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa”).

² Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 2.1 artikulua; Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 14. artiku- lua; Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 2.1 artikulua; Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubi- deen Nazioarteko Itunaren 2.2 artikulua; edo arraza-diskriminazioaren era guztiak ezabatzeari buruzko nazioar- teko hitzarmena.

Immigrazioa eta aniztasuna, aukera-leihoak Euskadirentzat

“Euskadin bizi diren atzerritarren %19k soilik ditu 45 urte baino gehiago”

“Immigrazioa oso ondorio positiboak ditu gizarte hartzaileentzat”

“Berdintasuneko testuinguru batek erakargarri bihurtzen du gure gizartea nazioarteko talentuarentzat”

6. Printzipioetan oinarritutako ikuspegi normatibo horrek ezin digu egiazko egitate bat ezkutatu, hau da, immigrazioa oso ondorio positiboak izaten ari dela jada gure gizartearentzat. Ondorio horiek neurtu eta objektibatu egin daitezke, eta ez datoz bat immigrazioaren fenomenoaren arazo bat baino ez dela dioten diskurtsoekin. Gaur egun, gizarte garatuenek zalantzak dituzte etorkizun demografikoaren inguruan -jaiotza-tasaren jaitsiera, zahartzea- eta horrek dituen ondorio sozial eta ekonomikoen inguruan -zaintza-eskariaren ugaritzea, biztanleria aktiboaren murrizketa-, eta esperantzaz eta esker onez ikusi behar dugu munduko beste toki batzuetako pertsonen Euskadin bizitzeko aukera egin izana eta beren energia eta bizindarra ekarri eta partekatu izana³.
7. Gauza bera esan liteke ikuspegi ekonomiko hutsetik. Lan-aukerak dira gure herrialdera emigratzeko arrazoi nagusia. Lan egitera etortzen dira etorkinak Euskadira⁴. Azterlan gehienek erakusten dutenez, immigrazioak oso ondorio ekonomiko positiboak ditu gizarte hartzaileentzat. Izan ere, biztanleria aktiboaren eta emakumeen jarduera-tasaren hazkundea bultzatzen du, zuzeneko eta zeharkako zergen eta gizarte-segurantzarako kotizazioen bidez diru-kutxa publikoetarako ekarpena egiten du, kontsumoaren hazkundea bultzatzen du eta enpresa-ekimen berriak sortzen ditu⁵. Krisi-une hauetan garrantzitsua da gogoratzea immigrazioa, gizartearen ongizate orokorra bultzatzeaz gain, epe luzerako lan-indarraren inguruan aurreikusitako premiari eman beharreko konponbidearen zati ere izango dela. Enpresen barruan kultura-aniztasuna ondo kudeatu eta txertatzeak ez-diskriminazioko giroa eragiten du, eta langile eta enpresen mesederako da hori betiere. Berdintasuneko eta aniztasunaren aitortpeneko testuinguru batek erakargarri bihurtzen du gure gizartea nazioarteko talentuarentzat.
8. Ez dugu ahaztu behar atzerriko etorkinek bertako biztanleek baino ezegonkortasun eta kalteberatasun handiagoko egoeran bizitzeko eta lan egiteko arriskua dutela. Aniztasunaren aldeko jardunarekin batera, benetan kohesionaturiko gizarte bat eraikitzeak neurri eraginkorrak hartu behar dira. Aniztasunaren aitortpena egiazkoa izan dadin, guztien gizarte-eskubideak baliatzeko aukera bermatuko duten banaketa-politikak eta politika unibertsalistak behar dira.
9. Aniztasuna aukera handia da euskal gizartearentzat. Azterlan eta ikerketa askok diotenez, hertsiki lotuta daude kultura-aniztasuna eta erakundearen (enpresen eta unibertsitateen) eta gizarte osoaren sormenean, produktibitatean eta lehiakortasunarekin.

3 Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) argitaratutako Proyección de la Población de España a Corto Plazo 2011-2021 azterlanaren arabera, Euskadik ia 120.000 biztanle galduko ditu datozen hamar urteotan, jaiotzen eta iritsiko diren etorkinen kopuruaren jaitsieragatik eta emigrazioaren igoeragatik batez ere. Jaitsiera hori are handiagoa izango litzateke etorkinen ekarpenik gabe.

4 Gure artean dauden etorkinen % 7,1ek baino ez ditu aipatzen gizarte-laguntzak emigratzeko erabakia hartzeko arrazoiaren artean. (Iturria: EPIE 2010).

5 Okupatuaren artean, 77.000 etorkinak dira, hau da, okupatu guztien %8,2^a (Iturria, EPIE 2010).

sunean izandako hobekuntzak. Zalantzarik gabe, gizarte askotarikoenak dira aberatsenak. Aniztasun horrek datozen urteetan bere potentzial guztia zabal dezala, horixe da gure erronka, eta horretan ahalegindu behar dugu erakunde eta gizarte-agente guztiek. Egungo zailtasunak gainditu behar ditugu giza kapitala ondo aprobetxatu eta mobilizatzeko, dagoena edo irits daitekeena, euskal produkzio-sarea, haren lehiakortasuna eta haren nazioartekotze-potentziala indartzeko.

Integrazioaren/txertatzearen ikuspegia

10. Etorkinen gehiengo handi batek Euskadin geratu nahi du⁶. Gure lurrean geratzeko borondatea erakusten du gehiengoak. Egungo immigrazioari buruz dugun ikuspegia aldatu behar dugu. Ez da fenomeno iragankor edo koiunturala, baizik eta errealitate estrukturala. Geratzeko borondate hori kontuan hartuta, gogoeta egin behar dugu indarreko ideien eta ideia horietatik ondorioztatzen diren erroldatzeko, erregularizatzeko, berrelkartzeko eta nazionalizatzeko mekanismo eta prozesuen inguruan. Ez da bidezkoa legeek geratzeko borondate hori ez bultzatzea eta etorkinak salbuespen-egoera batean uztea.
11. Salbuespen behartu hori agerian geratzen da, esaterako, zenbait aurreikuspen demografikotan esaten denean etorkizunean euskal biztanleriaren ehuneko jakin bat “etorkina izango dela”, kategoria horretan jada gure artean bizi diren pertsonak zein etorkizunean gizarte honetan txerta daitezkeenak bilduta. Ikuspegi horrek argitasun-ahalegina eskatzen du administrazio-kategorietan, eguneroko integrazio-prozesuak sine die ez geroratzeko. Lege-aurreikuspenek eguneroko integrazio hori bultzatu eta babestu egin behar dute, oztoporik jarri gabe.
12. Gehiegitan, ereduak sorrarazten dituzten teorizazio konplexuetatik abiatuta lan-tzen dugu etorkinen integrazioa, sarritan eguneroko errealitatera hurbiltzea erraz-ten ez duten teorizazioetatik, alegia. Agian gauza zehatzetatik, eguneroko bizitza-tik abiatuta hasi beharko genukeen integrazioan pentsatzen. Ezohiko alderdietan pentsatzeak daukan arriskua zera da, etorkinak eta bertakoak funtsean desberdi-nak direla pentsa daitekeela beti. Eta hori ez da egia. Guztiok humanitate-oinarri bera dugu, eta nahi, ideal eta esperientzia unibertsalekin identifikatzen gara ho-rren ondorioz. Bizimodua duintasunez ateratzea, maite ditugun pertsonekin bizi ahal izatea, bizi garen komunitateen ongizatean eta garapenean arduraz laguntzea, gure bizitzarekin zerikusia duten prozesuen inguruan erabakitzeko ahalmena iza-tea, autonomia eta errespetua izatea... horiek guztiak bizipenak eta nahiak dira, betetzen direnean gizarte jakin bateko erabateko kide garela sentitzea ahalbide-tzen digutenak.

“Ez da fenomeno iragankor edo koiunturala, baizik eta errealitate estrukturala”

“Agian gauza zehatzetatik, eguneroko bizitzatik abiatuta hasi beharko genukeen integrazioan pentsatzen”

⁶ 10etik ia 9k gutxienez hurrengo bost urteetan Euskadin geratu nahiko luke. (Iturria, EPIE, 2010)

13. Hori dela-eta, ahalegin handia egin behar dugu beste edozein gizakiren eskarrietan, premietan eta arazoetan gure burua ikusteko. Etorkinek beren nahiak edo asmoak -politikan parte hartzeko, gizarte-onespena lortzeko, iritziak adierazteko- azaltzen dituztenean, haien lekuan jartzeko gai izan behar dugu. Nahi eta asmo horiek ez dira beste edonork izan ditzakeenen desberdinak. Horiek egiteari buruzko eztabaida betiere humanoagoa izango da, baina baita eraginkorragoa ere, hurbiltasunetik eta ulerkuntzatik planteatzen bada, elkarriketa faktore horiek betetzeko gaur egungo bitarteko eta baliabideetan oinarrituta planteatzen bada, eta ez eskarrietan oinarrituta, eskari diren aldetik. Prozesu noranzko biko eta dinamiko gisa ikusten dugu integrazioa, gizarte honetan bizi garen pertsona guztiak elkarri egokitzeko baliagarria⁷. Formulazio horrek esan nahi du integrazioa ez dela egoera soil bat, baizik eta denboran luzatzen den prozesu sozial dinamiko bat, etengabe errepikatu eta berritu beharrekoa., eta esan nahi du, halaber, integrazioak errealitate berrira egokitzeko elkarren arteko ahalegin bat behar duela, emigraturiko biztanleriaren aldetik zein gizarte hartzailearen aldetik.

“Integrazioa gizarte honetan bizi garen pertsona guztien arteko moldatze-prozesu dinamikotzat jotzen dugu, bi noranzkoa”

“Gure erakunde eta instituzioek aniztasunaren bizipena albait modurik hurbilenean sentitzea”

14. Integrazioa gizarte honetan bizi garen pertsona guztien arteko moldatze-prozesu dinamikotzat jotzen dugu, bi noranzkoa. Formulazio horrek esan nahi du gizarteratzea ez dela egoera bat, prozesu sozial eta dinamikoa baizik, luze irauten duena, etengabe errepikatu eta berritu behar dena, eta errealitate berrira egokitzeko elkarren arteko esfortzua eskatzen duena, bai etorkinen aldetik bai gizarte hartzailearen aldetik.
15. Ikuspegi horretatik, Itun hau sinatzen dugun instituzio eta erakundeek konpromisoa hartzen dugu bitarteko egokiak jartzeko gizartean dagoen aniztasuna gizartearen beraren barruan ere islatzeko, edo, gizartearen beraren jarduera eta proposamene-tan behintzat. Gure erakunde eta instituzioek aniztasunaren bizipena albait modurik hurbilenean sentitzen duten neurrian, aniztasunarekiko sentikorragoak izango gara.

Narratiben eta diskurtsoen funtsezko garrantzia

“Immigrazioari buruz diskurtso estigmatzaile guztiak aktiboki baztertu behar ditugu”

16. Immigrazioa da baliatzen ditugun narratiba eta diskurtsoen funtsezko garrantzia beste edozeinek baino argiago erakusten duen gizarte-esparrua. Esparru bereziki sentsiblea dugu aurreiritzi eta estereotipoekiko. Horregatik, dokumentu hau sinatzen duten erakunde eta instituzioek konpromisoa hartzen dute immigrazioari buruz aurreiritzietan eta gehiegizko orokortzean oinarrituta sortu diren diskurtso estigmatzaile guztiak aktiboki baztertzeko, eta euskal gizarteari dei egiten diote arrazismoaren eta xenofobiaren era ireki eta sotilei aurka egiteko eta inpunitate-esparru guztiak indarrrik gabe uzteko eta salatzeke.

“Komunikabideak funtsezkoak dira”

17. Komunikabideak funtsezkoak dira ideario bat eraiki eta haren gainean immigrazioaren inguruko beharrezko gizarte-adostasuna eraikitzeke. Kazetaritza-enpresek beren profesionalen etengabeko prestakuntza sustatu behar dute estereoti-

⁷ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2005:0389:FIN:ES:PDF>

po negatiboen erreproduzio akritikoa eta gizarteak etorkinak kriminaliza ditzala saihesteko. Arreta berezia jarri beharko dute kolektibo homogeen gisa ez tratatzeko eta alor horri buruzko jardunbide egokien dekalogoak errespetatzeko konpromisoa hartzeko.

18. Oso garrantzitsua da dokumentu honetan bilduriko oinarritzko printzipioen inguruko ahalik eta adostasunik handiena lortzea eragile politiko guztien artean. Era horretan, immigrazio- eta integrazio-politikak ez dira hauteskunde-koiunturen mende geratuko, eta ez dute gorabeherarik izango parlamentuetan izaten diren gehiengoaren arabera. Itun hau sinatzen duten erakundeek konpromisoa hartzen dute alor horretan politika irmoak sustatzeko, genero-indarkeriaren aurkako borrokan edo antzekoetan atxikitakoen antzekoak, hain zuzen ere.

“Immigrazio eta integrazio-politikak ez dira hauteskunde-koiunturen mende geratuko”

Emakumeak eta immigrazioa

19. Emakumeak ezkutatu egin dira migrazio-diskurtsoetan, besteak beste migrazioaren diskurtso tradizionalean protagonistak gizonak direlako. Dena den, gizonen “laguntzaile” izateari eta bigarren mailako rola betetzeari utzi, eta migrazio-proiektu autonomoak dituzten agente independente gisa agertu dira emakumeak. Badira gizarte hartzaileetan sendo erroturiko estereotipo batzuk emakume etorkinak otzantasunarekin lotzen dituztenak, haien ekimen-gaitasuna eta kontrako egoeretan bizirauteko trebetasunak ukatzen dituztenak eta errealitate desberdinak homogeneizatzen dituztenak. Diskriminazio sexista errealitate globala da, emakume guztiok pairatzen duguna; diskriminazio horren aurkako erresistentzia ere globala da eta ikaskuntza hori emakumeekin doa, beste gaitasun askorekin batera. Genero-berdintasuna funtsezko printzipioa da gure elkarbizitzarako, eta milioika emakumeren borrokari esker lortu da. Printzipio ukaezina da, emakumezkoen biztanleria guztiari bermatu beharrekoa, haien jatorrizko herrialdea edozein dela ere.
20. Estereotipo sexistak indartzen eta emakumeen migrazioaren ekarpenak ikusezin bihurtzen laguntzen duen faktore bat zera da, emakume etorkinen proportzio handi bat okerren ordainduta dauden, ikusezinenak diren eta gizarte-ospe gutxien duten lan-hutsuneak betetzera etorri dela: etxeko eta zainketako lana, eta lan sexuala. Dokumentu hau sinatzen duten erakunde eta entitateek egoera horiei guztiei aurre egiteko duten borondatea adierazten dute, lehenik ere emakume horien funtsezko duintasunari erantzunez.
21. Familia- eta lan-bizitza uztartzeko emakumeen eta gizonen arteko gatazka ez da konpondu gure gizartean. Horregatik, bertako emakumeek oraindik ere bakarrik hartzen dute beren gain ugalketa-lana, eta gizonak beren gain hartzen ez duten gehiegizko erantzukizuna eta lana “konpontzen” dute emakumeen migrazioa zainketaren sistema formal eta informalaren ardatz bihurtuta.

“Genero-berdintasuna funtsezko printzipioa da gure elkarbizitzarako”

22. Eskubideen urraketa horiei aurre egingo dion politika bat gauzatzeko, etxeko esparruko lan-merkatua kontrolatu eta arautu behar da, familia berriz elkartzeko politikak bideratu behar dira, eta euskal emakume guztiei, bertako eta etorkin, lana eta familia uztartzea ahalbidetuko dieten gizarte-politikak abian jarri behar dira.

Tokian tokiko esparruaren eta eguneroko integrazioaren garrantzia

“Udalek betetzen duten zereginak ikaragarritzko garrantzia du”

23. Immigrazioa fenomeno globala bada ere, integrazioa, gizarte-kohesioa eta elkarbizitza tokian tokiko espazioan gertatzen, kudeatzen eta bideratzen dira. Hori dela-eta, herritarrengandik hurbilen duden erakundeek —udalek— harreraren, laguntzaren, zerbitzuak ematearen eta kultura arteko elkarbizitzaren alorrean betetzen duten zereginak ikaragarritzko garrantzia du. Udalek irizpide komunak eta baliabide nahikoak behar dituzte lan hori modurik egokienean egiteko. Tokian tokiko esparruan dute zehaztasun-mailarik handiena integrazio-planek, udalek hautematen baitituzte beste inork baino zehatzago eta hurbilago beren auzokoen premiak. Gainera, udalerrietan gauzatzen dira haien arteko harremanak eguneroko bizitzan, eta, hori horrela, elkarbizitza egokiaren mesedetarako diren jardunak aplikatu behar dira.
24. Kulturartekotasunera bideratutako prozesu etengabea dagoen immigrazioaren ondoriozko aniztasunaren kudeaketan, hirugarren sektoreak bete beharreko zereginak funtsezkoa izan behar du. Zerbitzuen eta politika publikoen erantzukizuna administrazio publikoei dagokiela (bere eskumen-esparruetan) abiapuntutzat hartuta, hirugarren sektoreak, bere erakundeen izaera askotariko eta anitzean, modu koordinatuan, lagungarrian eta osagarrian jardun behar du administrazio publiko horiekin etorkinen erabateko integrazioa lortzeko prozesu horren etapa, baliabide eta programa guztietan (definizioa, plangintza, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa), betiere partenariotza egonkorrean.
25. Hirugarren sektoreko erakundeek, gizarte zibilaren adierazpen gisa eta elkartasunaren botereaz hornituta (botere politikoaren eta botere ekonomikoaren aurrean), hurbiltasunaren balio erantsia gehitzen dute (hots, etorkinen gizarte-errealitatearekiko hurbiltasun handiagoaren balioa), eta hori, betiere, jardun dezaketan eta jardun beharreko esparru eta zerbitzu orokor eta espezifiko ugarietan (hala nola harrera-programak, bertako biztanleriaren sentsibilizazioa, parte-hartze sozial eta zibikoa, hezkuntza-zeregina, gizarte-bazterkeriaren aurkako jarduna, etorkinen gizarte-eskubideen defentsa eta abar).
26. Hezkuntza ez-formala (astialdiko hezkuntza, kale-hezkuntza, animazio soziokulturala...) lehen mailako espazio sozializatzailea da.

Hezkuntza inklusiboa

27. Haur guztien arteko harremanetarako gune nagusia da eskola, hezkuntza formaren lekua eta gizarte-mugikortasunaren motorra, baita haur guztiak herritartasunerako hezten diren gunea ere. Gainera, eskolak funtsezko egitekoa du etorkinen seme-alabak (etorkizuneko euskal herritar izango direnak) gizarte hartzailera egokitzeko. Ikastetxea, bestalde, gune ezin hobe da jatorri desberdineko pertsona helduak elkartzeko, seme-alabei laguntzean partekatzen dituzten gune eta denboretan harremanak ezartzeko aukera izaten baitute⁸.
28. Ikasle guztien ekitatea eta aukera-berdintasuna bultzatu behar du hezkuntza-sistemak, hezkuntza-ibilbidea amaitzen dutenean gizartean eta lan-merkatuan integratzeko aukera berak izan ditzaten. Gaur egun, euskal gizartearentzako erronka garrantzitsua da etorkin-jatorriko haurrak eskolatzerakoan sareetan eta eredueta dauden desorekei aurre egitea (ikasle horien gaintimentsioa eskola publikoan, eta ikasle horien gaintimentsioa euskara gutxiago duten eredueta, hurrenez hurren). Izan ere, desoreka horiek etorkizuneko desberdintasun- eta gatazka-iturri dira. Bereziki kezkarria da jatorrien arabera eskola-kontzentrazioak egotea, hau da, ikastetxe batzuetan ia ikasle guztiak etorkin-jatorriak izatea eta beste batzuetan ia ikasle guztiak bertakoak izatea. Guneak partekatzea, elkar ezagutzea eta estimatzea funtsezkoa da ikasle guztien integrazio- eta sozializazio-prozesuan.
29. Etorkin-jatorriko ikasleen zati batek hezkuntza-premia espezifikoak ditu euskal eskola-sisteman, kasu jakin batzuetan luzea izan daitekeen denboraldi batean. Aniztasuna behar bezala kudeatzeko eta hezkuntza-premia espezifiko horiei erantzuteko, irakasleen jakintza, ahalegina eta lan-denbora behar da. Alde batetik, oso garrantzitsua da irakasleen prestakuntza, hasierakoa zein etengabea, eta administrazioari dagokio prestakuntza hori aurreikustea eta bultzatzea. Bestetik, administrazioak beharrezkoak diren baliabideekin erantzun behar die hezkuntza-premia horiei, batez ere giza baliabideekin.
30. Eskolak etorkizuneko herritarrak hezteko betetzen duen lanaren barruan, adierazi beharra dago oso garrantzitsua dela migrazioen arrazoiei, estereotipoen aurkako heziketari, eguneroko egoeren eta testu mediatikoen analisi kritikoari eta abarri buruzko jakintza biltzen duen hezkuntza. Horrekin lotuta dago kultura arteko hezkuntza, gizarte askotariko batean bizitzeko ikasle guztiek garatu beharreko gaitasunen multzoaren garapen gisa ulertuta (hala nola gatazken kudeaketa, desberdinen arteko komunikazioa eta abar). Curriculumaren eduki etnozentrismak eta eskola-tresnak berrikustea zeregin horren barruan dago.

“Guneak partekatzea, elkar ezagutzea eta estimatzea funtsezkoa da ikasle guztien integrazio eta sozializazio prozesuan”

⁸ Euskal hezkuntza-sisteman txertatuta dauden etorkin-jatorriko ikasleen kopurua eskola-biztanleriaren % 6,9 da. Zifra hori Espainiako batez bestekoa eta beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino txikiagoa da zenbait erkidego mugakideetako baino txikiagoa ere bai, eta kudeaketa arduratsua eta konprometitua ahalbidetzen du. Aniztasun horren kudeaketa egokia funtsezko elementua da, hezkuntzagunean zeinu positiboko katalizatzaile-lana egin dezakeena.

31. Eskola inklusiboaren paradigmak aurreko erronkak kokatzeko esparrua ahalbidetzen du. Eskola inklusiboaren helburua ikasle bakoitzari bere gaitasunak garatzen laguntzea da, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta eta ulertuta betiere. Eskola horrek, aldi berean, komunitate-zentzua bultzatzen du, hots, zerbaiten zati izateko eta onartua izateko zentzua. Egia da eskola inklusiboa utopia dela, baina egia da, halaber, ikastetxe eta irakasle ugari urrats irmoak egiten ari direla norabide horretan.

Euskara, hizkuntzak eta integrazioa

“Gizarte hartzailleetako hizkuntzak ikastea garrantzi handiko faktorea da etorkinen egokitzean”

32. Gizarte hartzailleetako hizkuntzak ikastea garrantzi handiko faktorea da etorkinen egokitzean. Euskal gizarteak bi hizkuntza ditu komunikatzeko, biak ere ofizialak. Egoera soziolinguitiko konplexuan daude hizkuntza horiek, ezberdina zonaldeen arabera. Bestalde, gizarte honek ahalegin handia egin du eta egiten ari da euskararen normalizazioa lortzeko. Euskal gizarteak dagokio bi hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko aukera ematea gurera iristen direnei. Beharrezkoa da, halaber, etorkin-jatorriko haurrek bi hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko bertako haurrek dituzten aukera berak izatea.
33. Bestalde, gizarte honek ahalegin handia egin du eta egiten ari da euskararen normalizazioa lortzeko. Gure ustez, gizarte-kohesioa, sustapen sozioekonomikorako aukerak eta euskal gizartearen zati izateko eta euskal gizartearekin identifikatzeko sentimendua indar ditzakeen elementua da euskara. Horregatik, etorkinen kolektiboan euskara bultzatzea gizarteratze-tresna ona dela uste dugu. Euskara etorkinen kolektibora hurbiltzeko eta etorkinen artean sustatzeko eginkizuna antolatzerakoan, euskara sendotzeko eta euskal gizartean presentzia handiagoa izan dezan lortzeko moduari buruzko hausnarketa zabalagoa egin behar dugu.
34. Beste herrialdeetatik datorren biztanleriak dakizkien eta erabiltzen dituen hizkuntzak onetsi eta balioetsi beharko ditugu, orobat. Hain zuzen, hizkuntzak funtsezko elementuak dira pertsonen nortasunean, eta gizarte hartzailleak etorkinen jatorrizko hizkuntzak aitortzeak herritar berrien gizarteratzea errazten du, bidezko gizarteratzearen oinarri den elkarrekikotasunaren zati izateaz gain.

Praktikoa ere izan nahi duen ituna

35. Immigrazioarako Itun Sozial honek zentzuzko esparru bat osatzen du, printzipio eta balioen inguruko konpromiso bat, eta, dena den, praktikara ere bultzatzen duen dokumentu izatera iritsi nahi du. Sinatzen duten erakundeek ahalegina egin beharko lukete bakoitzak bere esparruan printzipio eta balio horiek aplikatzeko, autoebaluazioko elementu gisa erabilita, dagokien funtzionamendua aztertzeko immigrazioaren eta aniztasunaren gaiarekin zerikusia daukan guztian. Egiteko asko falta bada ere, badira jada zenbait ekimen martxan; hainbat gizarte- eta erakunde-esparrutan elkarbizitzarako “jardunbide egokiak” identifikatzea eta kokatzea izango litzateke lehenengo zeregina, betiere praktika horretarako orientazio gisa baliagarri izango direnak.

36. Euskal erakunde-maila guztiak sustatzen ari dira jada etorkinen integrazioa bultzatzera bideratutako politikak eta ekimenak. Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta udal ugarik hainbat programa abiarazi dituzte integrazioa eta elkarbizitza sendotzeko, eta xenofobiari aurrea hartzeko. Gizarte zibila ere oso proaktiboa izan da arlo horretan, eta laguntza eta harrera eskaini die pertsona iritsi berriei. Hain baliotsua eta beharrezkoa den lan horrek, joera unibertsalistako gizarte-politika batzuekin batera, neurri handi batean agerian uzten du Euskadin zergatik ez den arazo larririk sortu immigrazioaren inguruan, eta zergatik integratu diren normaltasunez jatorri atzerritarreko auzoko berri ugari.
37. Etorkinen integrazioaren esparruan esku hartzen duten erakunde-eragile eta gizarte-eragile ugariak aukera garrantzitsuak eskaintzen dituzte, eta gure erakunde- eta gizarte-egituraren aberastasunaren eta aniztasunaren adierazgarri da hori. Kontrapartida gisa, eraginkortasuna lortzeko beharrezkoa da EAEko barne-esparruan integrazioari buruzko euskal politikaren erantzukizunak, rolak, eskumenak, tresnak eta baliabideak argi eta garbi definitzea. Era berean, erakunde- eta gizarte-maila guztien arteko lankidetzak-mekanismoak definitu behar dira.
38. EAEren baitako barne-erantzukidetasunarekin batera, beharrezkoa da immigrazioaren eremuko erantzukidetasun handiagoa Estatuaren esparruan. Gobernu zentralari baino esleitzen ez zaion immigrazio-politikaren (fluxuen kudeaketa) eta autonomia-erkidegoei eta tokiko eremuari (eta foru-eremuari Euskadin) esleitzen zaien integrazio-politikaren (a posteriori) arteko bereizketa tradizionalak erantzukidetasun eta gaitasun autonomiko handiagoa ekarri behar du fluxuen kudeaketan. Modu horretan soilik da posible etorkinak eta haien familiak hartzeko eta integratzeko beharrezkoak diren baliabideen hornidura aurreikustea eta antolatzea, eta euskal lan-merkatura egokitutako eskari zehatzak adieraztea.

“Erakunde eta gizarte-maila guztien arteko lankidetzak-mekanismoak definitu behar dira”

Zailtasunei modu positiboan aurre egitea eta etorkizunari itxaropenarekin begiratzea

39. Denbora badaukagu, baina ez galtzeko, aprobetxatzeko baizik. Atzerritarren ehuneko txiki samarra dugu Euskadin⁹. Pertsona horiek, gainera, aktiboki agertzen dute integratzeko borondatea, beste edozein herritarrek bezala laguntzen baitute gizarte hau hobetzen. Atzera begiratzen badugu, ikusiko dugu gure historian izan ditugun une batzuk ikasbide izan daitezkeela bizi ditugun garai hauei behar bezala erantzuteko. Euskadi beti izan da migrazio- eta immigrazio-lurra.

⁹ Estatistikako Institutu Nazionalaren behin-behineko datuen arabera, Euskadin 144.551 atzerritar daude errol-datuta, hau da, biztanle guztien % 6,6. Ehuneko hori beste autonomia-erkidego batzuetako edo Estatu bategi bestekoaren oso azpitik dago (Estatuko batez bestekoa % 12,2ra iristen da).

40. Epe laburrera begira, zailtasun-iturri izan liteke errealitate berri hori. Ez dugu hori ezkutatu behar; aitzitik, onartu eta aldaketa sozialeko prozesu guztietan izaten den gauza normalizat hartu behar dugu. Zailtasun horien adierazpideak kontuan hartu behar ditugu, modu konstruktiboan aurre egiteko eta gainditzeko. Pazientziaz jokatu behar dugu, baina, aldi berean, zorrotzak izan behar dugu.
41. Immigrazioa eta harekin batera doazen aniztasun berriak denon artean guretzat eta gure seme-alabentzat zer euskal gizarte nahi dugun berriz pentsatzeko aukera eta pizgarria izan behar dute. Hartzen ditugun konpromiso eta erabakiekin asmatzen badugu etorkizun hobearen oinarriak jartzen ariko gara.